



EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Ebaluazio diagnostikoaren
txostenei buruzko

20

oinarrizko galdera

2009

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko ebaluazio diagnostikoaren garapena, antolamendua eta gauzapena arautzen dituen 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren arabera eta probak egiteko jarraibideak finkatzen dituen Hezkuntza Sailburuordetzaren Erabakiaren arabera, Ebaluazio diagnostikoko koordinazio taldearen bidez —aipatutako Aginduan 5.3 artikuluan zehazten den bezala—, ikastetxeek beren ikasleek 2008-09 ikasturteko ebaluazioko probetan lortutako emaitzak aztertu eta baloratu behar dituzte.

Arestian aipatutako Erabakiak bere 10. artikuluan finkatzen duen bezala, zuzendaritza taldeak zenbait txosten eskuratu ahal izango ditu, ikastetxeak, ebaluazioan parte hartu zuten ikastalde eta ikasle bakoitzak lortutako emaitzei buruzko informazioarekin. Txosten horiek www.ediagnostikoak.net zerbitzariaren bidez lortu ahal izango dituzte.

Emaitzen Txosten ezberdinak, haien ezaugarriak eta haiek egiteko kontuan izan diren irizpideak ezagutzen eta ulertzen laguntzeko asmoz, informazio gida hau aurkezten da.

Oso kontuan hartu beharrezkoa da ebaluazio diagnostikoa egoeraren argazkia baino ez dela, une jakin batean eta neurketa tresna jakin batzuen bidez ikastetxe bakoitzeko errealitatea, beti partziala, erakusten duena. Emaitzak ikuspegi horretatik eta probak egin zireneko baldintza zehatzetatik aztertu behar dira.



1 Zergatik erabiltzen dira proba berdinak ikasle guztiak ebaluatzeko, ikastetxe batzuetan ezaugarri berezietako ikasleak dituztela kontuan hartu gabe?

Ekitate printzipioagatik, hezkuntzaren helburua ikasle guztiak oinarrizko kompetentziak (Oinarrizko Hezkuntzako curriculum definitzen duen 175/2207 Dekretuan finkatzen direnak) garatzea baita, bakoitzaren ezaugarriak edo familiarenak edozein direlarik ere. Ebaluazio diagnostikoa ebaluazio estandarizatua da, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle guztientzako berdina.

2 Zenbat galdera zuen proba bakoitzak eta nola-koak ziren?

Bi hezkuntza-etapetan eta kompetentzia guztietan, ehuneko handi batean galderak aukera anitzekoak ziren. Ehuneko txikiago batean, erantzunak erdi irekiak edo luzera txikiak ziren. Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzietan, galdera batean idazlan luze bat egin behar zuten, aurretiaz emandako gai bati buruz (gutxienez 60 hitzetakoa Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta 100 hitzetakoa DBHko 2. mailan).

Galdera mota eta kopurua

Oinarrizko kompetentziak	Dimentsioak	Item kopurua	
		Lehen Hezkuntzako 4. maila	DBHko 2. maila
Hizkuntza komunikazioa euskaraz	Entzumena	20	22 (A eredua) 23 (B-D eredua)
	Ulermena eta idazmena	23	28
Hizkuntza komunikazioa gaztelaniaz	Entzumena	22	23
	Ulermena eta idazmena	24	24
Matematikarako kompetentzia		20	24
Zientzia-, teknologia- eta osasun- kulturarako kompetentzia		26	41


3 Proba berdina egin zuten ikasle guztiak oinarrizko kompetentzia bakoitzean?

Bai, Hizkuntza komunikaziorako Kompetentzia euskaraz izan ezik, horretan izan ziren **bi mota ezberdinetako probak**: bata A ereduko ikasleen kompetentzia neurtzekoa eta bestea B eta D ereduetako ikasleen kompetentzia neurtzekoa. Bi pro-

bak zuten parte komun bat ikasle guztientzako, bai entzumenean bai irakurmenean.

Parte komun horri esker, probaren bi heren betetzen zuena, ikasle guztien emaitzak konpara daitezke, guztiak proba berdina egin ez duten arren.

Probaren behin betiko **egitura** honako hau izan zen:



4 Nola zuzendu dira probak?

Zuzenketa aldatu egiten da galderen formatuaren arabera :

- Aukera anitzeko galderak** automatikoki zuzendu dira, pertsonen parte hartzerik gabe, informatika-aplikazio berezi baten bidez. Aplikazio horrek ikasleek galdera bakoitzean aukera zuzena markatu duten ala ez egiaztatu du eta dagokien puntuazioa esleitzen zien.
- Galdera irekiak**, erantzun luzeago edo laburragoak, ikastetxeetatik kanpoko pertsonak zuzendu dituzte, lan horretarako espresuki kontrataturik, eta irizpide zehatzak erabiliz.

5 2009ko ebaluazioan parte hartu duten ikastetxe guztiak jasoko dituzte lortutako emaitzak?

Bai. Hala ere kontuan hartu behar da ikasle gutxi duten ikastetxeetako emaitzek gainontzeko ikastetxeetakoek besteko garantiarik eta fidagarritasunik ez daukatela. Edozein modutan ere, ikastetxe horiei ere informazioa helaraziko zaie.

6 da ikastetxe batean probak egin dituzten eta puntuazioa emaitzetarako kontuan hartu zaien **ikasleen gutxienezko kopurua**. Lagina hori baino txikiagoa denean nekez erabaki daiteke emaitzak ikastetxearen eraginari zor zaizkion ala ebaluatu diren ikasle jakinei. Adierazle hori, beraz, desegokia da konparazioak egiteko. Hori dela eta, ikastetxe txikiek emaitzak izartxo batekin markaturik jasoko dituzte, fidagarritasun txikiagoa dutela adierazteko.

6 Zein motatako txostenak jasoko ditugu ebaluazio diagnostikoaren ondorioz?

Gutxienez hiru mota ezberdinetako txostenak daude:

- Ikastetxeko txostena**, datu orokorrekina eta ebaluatutako ikastaldearen arabera.
- Ikaslearen txostena**, familiarentzako. Oinarrizko konpetentzia bakoitzean lortutako konpetentzia-maila azaltzen du.
- Erkidegoko txosten orokorra**. EAEko datu guztiak jasotzen ditu eta, baita ere, emaitzen korrelazioa aldagai ezberdinekiko.

7 Zeintzuk dira Ikastetxeko txostenaren ezaugarriak?

Txosten zabala da, ikastetxeko batez besteko emaitzak eta ebaluazioan parte hartu duen ikastalde bakoitzekoak jasotzen dituena. Ebaluatutako oinarrizko konpetentzia bakoitzean lortutako emaitza orokorrez gain, emaitza horiek beste ebaluazio batzuetan eragin nabaria izan duten aldagai ezberdinekin duten korrelazioa ere azaltzen da.

Ikastetxeko txostena egiteko oinarrizko bi irizpide hartu dira kontuan:

a) **Informazio nahiko baliagarria** eta **garrantzitsua** eskaintzea, ikastetxeei kanpoko datuetan oinarriturik beren hezkuntza-egoera baloratzen laguntzeko.

b) **Benetan konparagarriak diren hezkuntza-errealitateen arteko konparazio datuak** eskaintzea. Beste konparazio batzuek neutroak diruditen arren, ez dituzte kontuan izaten ikastetxe bakoitzaren funtsezko ezaugarriak (adibidez, ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturala, hizkuntza eredu, hezkuntza sarea), eta, beraz, alde batera utzi dira.

- Informazio nahiko baliagarria** eta **garrantzitsua** eskaintzea, ikastetxeei kanpoko datuetan oinarriturik beren hezkuntza-egoera baloratzen laguntzeko.
- Benetan konparagarriak diren hezkuntza-errealitateen arteko konparazio datuak** eskaintzea. Beste konparazio batzuek neutroak diruditen arren, ez dituzte kontuan izaten ikastetxe bakoitzaren funtsezko ezaugarriak (adibidez, ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturala, hizkuntza eredu, hezkuntza sarea), eta, beraz, alde batera utzi dira.

8 Zeintzuk dira Ikastetxeko txostenaren atalak?

Informazio guztia **bost ataletan** aurkeztzen da:

- Batez besteko emaitzak ebaluatutako oinarrizko konpetentzia bakoitzean.

Ebaluazioan parte hartu zuten ikastaldeetako bakoitzak konpetentzia ezberdinetan lortutako batez besteko emaitzak azaltzen dira, ikastetxeko batez besteko emaitzekin batera. Lehen atal horretan egiten diren konparazioak ez dira kanpoko datuekikoak, 2009ko ebaluazioan ikastetxean parte hartu duten ikastaldearen artekoak baizik.

- Ikasleen ehunekoetako banaketa konpetentzia mailen arabera.

Aurretiaz finkatutako konpetentzia maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa erakusten da, ikastetxeak ikasleen emaitzen sakabanatzea ezagutu ahal izan dezan eta, baita ere, ikastalde bakoitzaren barruan mailaren aldetiko ezberdintasun handirik ba ote dagoen jakiteko. Ez da kanpoko datuekiko konparaziorik eskaintzen, ebaluazioan parte hartu duten ikastaldearen artekoak baizik.



c) Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza sarea + hizkuntza eredua).

Lehenengo atalean aurkeztutako emaitzak —batez besteko emaitzak oinarrizko konpetentzia bakoitzean—Erkidegoan geruzan berean dauden ikasle guztiek lortu duten batez besteko emaitzekin konparatzen dira. Ikastetxean ez dauden geruzekin ez da konparaziorik egiten. Gainontzeko geruzetako emaitzak ebaluazio diagnostikoari buruzko txosten orokorrean ikusi ahal izango dira.

d) Emaitzak ikastetxearen indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).

Bigarren konparazio bat eskaintzen da atal horretan: ikastetxeko emaitzak eta ikastalde bakoitzeko indize sozio-ekonomiko eta kultural berdina duten ikastetxeek lortutako batez besteko emaitzekin konparatzen dira. Horrela ikastetxea beste ginetik ala azpitik dagoen ikusi ahal izango da.

e) Lortutako emaitzak eta ikastetxearen ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeenak.

Azken atalean handiko informazioa eranstean da: ikastetxeak eta ikastalde bakoitzak bere indize sozio-ekonomiko eta kulturalari dagozkion emaitzak lortu dituzten ala ez jakitea, eta, beraz, ikasleen jatorrizko egoera, nolabait, gainditzeko gai izan diren ala ez jakitea. Horretarako, ikastetxeak eta ikastalde bakoitzak lortutako puntuazioa —aurreko ataletatik ezagutzen da— aurkeztzen da, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera espero zitezkeen puntuazioekin batera.

9 Zein motatako emaitzak aurkezten dira ikastetxeko txostenean?

Ikastetxeko txosteneko emaitza guztiek bi ezaugarri hauek dituzte:


- a) **Ez da zenbakizko puntuaziorik ematen.** Horren ordez, emaitza bakoitza aurretiaz finkatutako hiru konpetentzia mailletako batean kokatzen da (ikus 11. galdera).
- b) Txosteneko grafiko guztietan ikastetxeko edo ikastalde bakoitzeko puntuazioa ez da puntu zehatz batez adierazten, **barra edo tarte** luzeago edo laburrago batez baizik. Tarteak esan nahi du ikastetxeko edo ikastaldeko puntuazioa, %95eko probabilitatearekin, barrako

puntu batean dagoela, erdialdean egoteko probabilitatea muturretan egotekoa baino handiagoa delarik.

Txostenean ageri diren zenbait grafiko hurrengo honen formatukoak dira.

Kasu batzuetan barren luzera desberdina da. Bi arrazoik azaltzen dute diferentzia hori:

- Bata, konpetentzia bakoitza edo konpetentzietako dimentsio bakoitza ebaluatzeko item kopurua aldatzen du: hortaz, **zenbat eta item kopuru handiagoa izan orduan eta barra laburragoa izango da**; izan ere, neurtzeko errorea txikiago da eta emaitzak fidagarriagoak dira.
- Bestea, ikastaldeko ikasle kopuruaren eragina, baita ere **emaitzen sakabanatzea**.



10 Zergatik ez da zenbakizko puntuaziorik ematen?

Funtsezko arrazoi batzuegatik:

- Rankingak edo **sailkapenak egiteko arriskua** ahalik gehien murrizteagatik. Horrelako sailkapenak egitea espresuki debekaturik dago oinarrizko hezkuntzaren Dekretuan eta ebaluazio diagnostikoaren Aginduan, eta so auzi kezagarria da ikastetxeentzako. Hipotesia da, zenbakizko daturik eskaini ezean, ikastetxeen zerrendak emaitzen arabera egiteko aukera ia desagertzen dela edo gutxienez hein handi batean oztopatzen dela.
- Nota akademiko batekin identifikatzea ezinezko** egiteagatik. Nota akademikoak ikastetxearen eta irakasleen betebeharrak eta erantzukizuna da, eta ebaluazio diagnostiko bateko emaitzekin konparatzea ez da bidezkoa.
- Benetan jakin nahi dena ez delako datu zehatz bat, ikastetxearen edo ebaluatutako ikastaldearen egoera baizik. **Puntuazio tarte bat eskaintzea estatistikoki zuzenagoa eta egokiagoa da** ebaluazio diagnostiko batean. Puntuazio tarte bat eskaintzen dugunean tankera honetako ebaluazioetan beti ego-

ten den errorea onartzen ari gara, eta puntuazioak inoiz ez direla zehatzak izaten aitortzen ari gara.

11 Zer dira kompetentzia-mailak eta zenbat kompetentzia-maila finkatu dira?

Ikasleek ebaluazio diagnostikoko probak egitean **erakusten dituzten ezagupenak, trebetasunak eta ahalmenak deskribatzen dituzte kompetentzia mailek**. Deskribapen horiek oinarrizko kompetentziak finkatzen dituen "Dokumentu Markoan" oinarrituta daude. Kompetentzia mailetatik ikastetxeek beren ikasleek eskuratutako ikaspenak ezagut ditzakete.

Emaitzak hiru kompetentzia-mailatan banaturik aurkezten dira: **hasierakoa, er-taina eta aurreratua**. Ikasle bat maila jakin batean dagoenean, maila horretako trebetasunetan eta beharagoko mailetaketan gai dela esan daiteke. ikasle batzuek edukiak finkaturik izango dituzte eta beste ikasle batzuk hurrengo mailako edukiak menperatzeko zorian egongo dira.

- MAILA AURRERATUAK** probetan ebaluatzen diren trebetasun eta eduki konplexuenak biltzen ditu.

- ERDI-MAILAK** probetan ebaluatzen diren trebetasun eta eduki oinarrizkoagoak biltzen ditu.
- HASIERAKO MAILAK** ez ditu beste bi kompetentzia mailen ezaugarri berberak, bertan mota ezberdin askotako ikasleak biltzen baitira: hezkuntza zikloari dagozkion trebetasunak eta edukiak eskuratzen hasten ari diren ikasleetatik laguntza apur batekin erdi-mailaren eskakizunak gaindi litzaketan ikasleetara.

Kontuan hartu behar da, emaitzak adierazteko puntuazio-tarte bat erabiltzen denean, batzuetan ikasle, ikastalde edo ikastetxe bati dagozkion grafikoan puntuazio-tarte bi kompetentzia mailen artean egon daitekeela. Horrek adieraziko luke beheko mailaren finkatze-prozesuan dagoela eta goiko mailari dagozkion ezagupenak eta trebetasunak hurbiltzen ari dela, arestian aipatu den bezala.

12 Badago oinarrizko kompetentzia bat gaindituta dagoela adierazten duen gutxienezko mailarik?

Ez. Oso garrantzitsua da ebaluazio diagnostikoaren xedea ez nahastea eta honako irizpide hauek argi edukitzea:

- Ebaluazio diagnostikoa ez da bukarako ebaluazio bat, eta ez du inolaz ere ordezkatzeko** irakasleek egiten duten **curriculum-ebaluazioa**. Helburua, beraz, ez da "gutxiegi", "nahiko" eta antzeko noten erreferentzia bat ematea, hori ikastetxearen eta irakasleen betebeharrak baita. Eskaintzen dena kanpotiko informazioa da, ikasle, ikastalde eta ikastetxe bakoitza oinarrizko kompetentzia ezberdinen garapen-continuum batean kokatzen duena. Horrekin batera, antzeko ezaugarriak dituzten ikastetxeen konparazioak ere eskaintzen dira.
- Xedea ahalik eta mailarik altuenera heltzea izan behar da beti**. Kompetentzia baten garapena, zentzu heretsian, ez da inoiz amaitzen. Ikastetxeak ahalegindu behar dira ikasleak oinarrizko kompetentzien ahalik eta garapen mailarik altuenera hel daitezen, eta horixe izan beharko luke ikastetxe guztien helburua. Komenigarria da, beraz, derri-gorrezko hezkuntza-etapetako une ezberdinetan zein mailatan gauden ezagutzeari, ordura arte egindakoak eta lortzeko falta zaigunaz jabetzeko, batez ere gure ikastetxearen ezaugarriak dituzten beste ikastetxe batzuekin konparaturik.
- Ebaluazio diagnostikoak kompetentzia ezberdinen oinarrizko as-**



pektuak ebaluatzen ditu, eta, beraz, ez du neurtzen ikastetxe batek ikasleei irakasten dien guztia, ezta ikasleek ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan ikasi duten guztia ere. Seguruenik, ikastetxeek askoz eduki gehiago lantzen dituzte oinarrizko konpetentzien ebaluazio bati dagozkionak baino, eta haietan oinarriturik egiten dituzte curriculum-ebaluazioak. Ebaluazio diagnostikoarekin ezin da neurtu, ez baita bere helburua, ikastetxe batean landu daitezkeen guztia edo landu beharko litzatekeena.

- **Emaitzak ezin dira zuzen konparatu ikastetxeko emaitzekin** (“gutxiegi”, “nahiko” edo promozionatzen duten ikasleen ehunekoak...). Ez litzateke bizidunak izango ebaluazio diagnostikoko emaitzak irakasleen kalifikazioekin konparatzea, ikasle batek arlo jakin bat gaintzeko irakasleek askoz aspektu gehiago izaten baitituzte kontuan ebaluazio diagnostikoan (kanpokoa, arkatx eta paperekoa, une jakin batean egiten dena) neur daitezkeenak baino. Curriculumean garatzen diren konpetentzietan oinarritzen bada ere, **ebaluazio diagnostikoa ez dago ikastetxe bakoitzeko edukien garapen zehatzari loturik**.

13 Oinarrizko konpetentzia ezberdinetako emaitzak zuzen konpara daitezke?

Ez. Probak diseinatzeko irizpide komunak erabili diren arren, **konpetentzia bakoitzak bere ezaugarri bereziak ditu eta konpetentzia bakoitzerako finkatu diren konpetentzia-mailak ezberdinak dira**.

14 Zein konparaketak egiten dira ezberdinetako ikastetxeen artean?

Lehenengo eta behin kontuan hartu beharko litzateke ikastetxe bakoitzaren berariazko egoerak eragin nabaria duela emaitzetan. Horregatik, ikastetxeko txostenean bi motatako konparazioak bakarrik egiten dira:

- a) Ikasleen **indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)**. Emaitzek argi erakutsi dute ezberdintasunik handienak maila sozio-ekonomiko ezberdinen artean gertatzen direla, ikastetxe mota ezberdinen artean baino gehiago.
- b) Ikastetxeari dagokion **geruzaren arabera**, hots, hezkuntza sarearen eta hizkuntza ereduaren konbinazioa. Kontuan

izan behar da hainbat kasutan hizkuntza ereduak ez dagoela ikastetxeari loturik, ikastetxeko ikastalde jakin bati edo batzuei baizik. Hori hizkuntza eredu bat baino gehiago duten ikastetxeetan gertatzen da.

15 Nola kalkulatu da ISEK indizea eta zergatik egiten da horrela?

Hainbat ebaluazio eta ikerlan ezberdinek erakutsi dute faktore askok, bai kanpokoek bai ikastetxe barrukoek, eragiten diotela oinarrizko konpetentzien garapenari eta ikaspenen eskurapenari. Kanpoko faktoreen artean Indize sozio-ekonomiko eta kulturala interesgarriena eta eragin handiena dutena da.

ISEK indizea kalkulatzeko erabiltzen den informazioa ikasleek galderasortan emandako erantzunetatik dator. Indizean aspektu ezberdinak sartzen dira: familiaren lanbide maila, familiaren ikasketa mailarik altuena eta aurreko esperientziak oso garrantzitsutzat jo dituen ondasun material eta kultural batzuk edukitzea (liburu kopurua etxean, egunkariak eta prentsa espezializatua irakurtzea, ordenagailua eta Internetarako sarbidea izatea).

Banakako datuetatik ikastetxeko ikasleen batez bestekoa kalkulatu da. Balio horren batez bestekoa 0an zentratu da —Autonomia Erkidegoko batez bestekoa— eta 1eko desbideratze tipikoa du. **Biztanleria osoa lau mailatan banatu da** (baxua, ertain baxua, ertain altua eta altua) eta mailako bakoitzean biztanleriaren %25 kokatzen da, ISEK indize altuago edo baxuagoaren arabera.

Kontuan izan behar da **konparazio-baliok direla, ez absolutuak**, etapa bakoitzean ebaluatu den mailako ikasleekikoa. Hartara, bi hezkuntza-etapak ebaluatuturik dituen ikastetxe bat, adibidez, ISEK maila ezberdin batean egon daiteke etapa bakoitzean, datuak ebaluatutako ikastaldeen datuak izan daitezke eta ez ikastetxeko ikasle guztiengandik. Beraz, txostenean ikastetxeko ISEK indizea aipatzen denean, ebaluatutako ikastaldeen ikasleen batez besteko ISEK indizea dela ulertu behar da.

16 Kontuan hartu dira probak egiten zituzten ikasle guztien puntuazioak?

Ez. Ikastetxe eta ikastalde bakoitzeko batez besteko emaitzetan probetan parte hartu duten ikasle guztien emaitzak hartu

dira kontuan, hurrengo kasu hauetan izan ezik:

- **Norberaren curriculum egokitzapen esanguratsua duten ikasleak**, prozedura orokorrean finkatutako irizpideen eta protokoloen arabera proban parte hartu ezin zutenak.
- Probak egin zirenean, **euskal hezkuntza sisteman eskolaturik urtebete baino gutxiago zeramaten ikasleak eta horrez gain probetako hizkuntza ezagutzen ez zutenak**. Bigarren mota horretako ikasleen kasuan, pasarte honetan aipatzen diren bi baldintzak bete behar dira.
- Euskarazko hizkuntza-komunikazioaren kasuan, **euskaratik salbuetsita dauden ikasle** guztien emaitzak ez dira kontuan izan, probak egin zituzten arren.
- Ikastetxeko batez besteko puntuazioan ez dira kontuan hartu ere ohiko ikasle absentistak ezta Eskolatzeko Osagarriko Programetan parte hartzen ari diren ikasleak.

17 Nola bermatzen da emaitzen isilpekotasuna?

Ebaluazioan ikastetxeei eta ikasleei buruzko informazio pribatua eta pertsonala era-

biltzen denez, sistema bat finkatu da datu guztien isilpekotasuna eta babesa bermatzeko eta, baita ere, ikastetxeen sailkapenak egitea galarazteko, legeak hori espresuki debekatzen baitu.

Horretarako bi sistema erabiltzen dira:

- Ebaluazioan erabiltzen den informazio guztia kodetuta dago**, izenak identifikatzea ezinezkoa izan dadin. Ikastetxeko eta familiarentzako azal-orrian ez dago inolako izenik, bakarrik ikastetxe bakoitzak ezagutuko duen kodigo bat.
- Informazioa eskuratzeko sistema mugatua** finkatu da, erabiltzaileen profilekin. Hezkuntza Sailburuordetzak eta ISEI-IVEIk bakarrik eskuratu ahal izango dituzte datu guztiak. Gainontzeko erabiltzaileek informazio partziala, beti kodetua, eskuratu ahal izango dute, betiere ikastetxearen baimenarekin. Datuen babesa ikastetxeko zuzendariaren ardura da.

18 Zeintzuk dira banakako txostenaren ezaggarriak?

Oinarrizko informazioa **duen txosten laburra eta sinplea** da, 2009ko proban

parte hartu duten ikasleetako bakoitzaren familiari zuzendua. Ebaluatutako oinarrizko kompetentzietako emaitza zehatzez gain, zenbait iradokizun orokor ere eskaintzen dira familiak ikasleari bere ikas prozesuaren alderdi batzuetan lagundu ahal izateko.

19 Nolako irizpideak erabili dira txostena egiteko?

Irizpide ezberdinak hartu dira kontuan:

- Ematen den informazioa **ulerterraza** izatea, **ez zenbakizkoa, edukizkoa baizik**.
- Familiei ematen zaien informazioa **ikasletxeko curriculum-ebaluazioetako noten kontra ez joatea**. Horretarako, txostenetan aurkezten den informazioa nekez konpara liteke ikastetxeak ematen duen zenbakizko puntuazioarekin.
- **Bidegabeko konparazioak ez egitea**. Familiei txostenean eskaintzen zaien informazioak ebaluatutako seme/alabaren egoera bakarrik deskribatzen du, inolako konparaziorik egin gabe.
- Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean **ikaslea zer egiteko gai den** deskribatzen du oro har.

20 2009ko eta 2010eko probetako emaitzak konparagarriak izango dira?

2009ko eta 2010eko probak galderak ezberdinek osatuko dituzten arren, konparazioak egin ahal izango dira, bi probetan **metrika bereko eskalak erabiliko baitira**. Horri esker, bi ebaluazioen arteko “zubia” egin ahal izango da.

Luzetarako datu hori interes handikoa izango da ikastetxeentzako, emaitzen epe ertainerako bilakaera ezagutu ahal izango baitute eta, baita ere, emaitzak mantentzen diren jakin ala faktore zehatzek eragiten dieten (ikasle multzo hobetagoa edo txarragoa irakasmilla batean, izandako hobekuntza prozesuak...).